

ARRIATSU ESKOLAREN HISTORIA

Eulali Aranburu Urkizu

Argazkiak: Eulali Aranburuk utziak

Oindi mendiaren azpialdean aurkitzen dira *Loidi, Osinaga, Ezio eta Zikuñaga* bailarak. Inguruan, nonahi, baserri zuri-zuriak ageri dira, Hernani herriaren erdigunetik "urruti"; ez, noski, gaur edonork autoa erabiltzen duenean, baina, bai mende hasieran bide horiek oinez zeharkatu behar zirenean. Eta baserrietako hurrek horrela egin behar izaten zuten, kultura eta heziketa bidean jartzeko. Oindi mendiaren oinetan Urumea ibaiak du bere uharka edo bidea egina, han barrena doaz antzinatik bere urak haran ederra ureztatuz. Urumea ibaiaren ezker aldean Loidi eta Osinaga daude, eta eskuinaldean Ezio eta Zikuñaga.

Oindi mendiaren zelai eta malkarretan hainbat nekazari, baserri inguruan izerditan lurralde oparoak lantzen, eta nonahi sagastiak.

Erribera aldean artasoro zabal eta ugariak; eta baserri ondoan baratzeak, etxerako pasabidean, garaian garaiko barazkiak izateko. Baserriko nagusiak ganaduaren ardura eta zaintza du. Etxekoandreak, berriz, esnea eta barazkien salmentarena. Salmenta egiteko astoa hartu eta herrian edo Donostian etxetik ibiltzen da, eta jasotako diruarekin azukrea, olio, haragia... ekartzen ditu etxera.

Bailara honetako *Ezio* baserria, bere baratze, sagasti eta guzti, BIYAK-BAT izeneko paper fabrika bihurtu zen 1920. urte inguruan. Herrikoentzat "EZIO FABRIKA" zen.

BIYAK-BAT paper fabrika, gerora PAPER Papeles Especiales, S.A. izena ere hartu zuena, 1983-1984. urtean itxi zen.



Ezio fabrika aurrean hainbat langile eta horien artean, sonbreroa daramana, Fernandez maisua. 1922

Fabrikak *Puente colgante* delakoa ere egin zuen, langileen pasabidea errazteko. Zubi honi *Ezioko zubia* deitu zioten, eta Urumea ibaia zeharkatzen du *Oianeder* baseritik; gerora *Oianederreko zubia* ere deitu izan zaio, eta gaur egun *Txurianeko zubia* izenez ezagutzen dugu gehienok.

Bailara honetan beste paper fabrika bat ere sortu zen, Zikuñagako papelera. Gerra Zibilaren ondoren egin zen, 1940. inguruan, *Zikuñagako Amari* eskainitako Ermita egondako lurretan (ordu arte Ermitarenak ziren eta zelai, sagasti, baratza eta soro horien ardura familia batek zuen). Pixkanaka fabrika handitzen joan zen eta baita ermitaren terrenoez jabetzen ere. Garai batean lur hauetan egiten ziren Zikuñagako Amaren omenezko ospakizunak, erromeria eta guzti. Gaur egun ingurune hau erabat aldatuta dago, erromeria egiten zen zabalguneari, esaterako, ezin zaio antzeman.

Zikuñagako Papelerak oraindik ere lanean jarraitzen du.


AUZO-ESKOLAREN BEHARRA

Azaletik bada ere, "ARRIATSU ESKOLARI" buruzko zenbait kontutxo azalduko ditut hemen.

Oinarrizko ikasketen derrigorrezkotasuna 1901. urtean indarrean jarri zen. Honela zioen Legeak: "*Derrigorrezko ikaskuntza*" 6-12 urte bitarteko haurrentzat da. Adin horretako haur guztiek, edozein dela ere beren maila soziala eta ekonomikoa, dute heziketa, kultura eta jakinduria jasotzeko eskubidea. Izan ere, balio horiek adierazten baitute herri baten heziketa eta aurrerapenerako ahalmena.

Udal Artxiboan aurkitu ditudan lehen aztarnak 1924. urtekoak dira. Urte horretako ekainean bildu omen ziren Hernaniko agintariak eta maixu-maixtrak, zein auzotan komeni zen jartzea Escuela Rural delakoa. Hiru eskolaren beharra ikusi zuten, agirietan jasota bezala, eta hala erabaki zuten *Loidi*, *Jauregi* eta *Zumadi* auzoetan sortzea eskolak.

Hernaniko Udalak garai hartan 5.291 biztanle zituen, eta, heziketa publikoko 101. artikulua zioenaren arabera, mutilentzako hiru eskola eta neskentzako beste hiru tokatzen zitzaizkion.



Ezio auzoa (1983-1984). Zikuñaga ermita tente ikusten da eta aurrez aurre "BIYAK-BAT PAPESA Papeles Especiales S.A."

Escuela Nacional de Graduado osatzen zuten Escuela Nacional Unitaria, Escuelas Nacionales eta Escuelas de Graduado de Sección delakoek. Azken hauetan Hernanik bost eskola zituen mutilentzat eta hiru neskentzat.

Eskola Pribatuak aparte ziren.

Legeak zer zioen aztertu ondoren, eta horren beharra ikusita, posible zela ikusi zuten Hernaniko Udal agintariek Escuela Rural bat, eta bideratzeari ekin zioten.

Eta hala, 1930. urtean egin ziren baimen eskariak.



Udaletxeko Irakaskuntzako Komisioak akordioa hartu zuen Luis Elizalde arkitekto jaunari eskatzea Escuela Rural Mixta berria eraikitzeko proiektua egin zezan.

Akordioak honela dio: "Escuela Rural Mixta de Primaria" bat egitea, solairu bakarrekoa eta 60 haurrentzakoak. *Loidi* etxalde ezker aldean dauden udal lurretan eraikiko da, Urumea ibaiaren eta *Malkarpe*-ko bide tartean.

Hernaniko udaletxeko idazkari jaunak izenpetu eta bidali zuen.

Arkitekto jaunak proiektua aurkeztu zion Hernaniko Udalari. Aurrekontu guztiak batuta 25.101,79 pezetako diru kopurua izango zen.

PROYECTO DE ESCUELA RURAL MIXTA



- **NON.** Loidi etxaldearen ezker aldean dauden udal lurretan, Urumea ibaia eta Malkarpe-ra doan bide tartean, Osiñaga eta Loidi etxaldeekin muga egiten duen zubi ondoan.
- **NOLA.** Urumea ibai ondoan dagoen lur zatia aprobetxatuz 50 cm-ko altxaera eman bide ertzetik, horrela ziurtatuta gelditzeko uholde handietan urak ez direla lehenengo solairura iritsiko.
- **ZERK OSATUKO LUKE ESKOLA-ETXEA:**
 - 1.- Sarrerako gela, haurrek euria egiten duenean aterpea izateko.
 - 2.- 60 haurrentzako gela.
 - 3.- Irakasle gela.
 - 4.- Arropa-gela: haurrek erantzten dituzten arropak uzteko, arropa zintzilikatzekoekin.
 - 5.- Hiru harraskatxo, hiru komun eta pixatoki.
 - 6.- Sukalde txiki bat, irakasleen beharretarako.
- **ZEREKIN EGINA.** Gremio guztiak izendatzen dira: hargina, igeltseroa, arotza, egiturarako arotza, lantegiko arotza, iturgina, elektrikaria... etab.

Dokumentu guzti hauei eranstean zaie "Baldintzen txostena", sei orrikoa.

Dokumentazio-agiriak bildu zirenean Julio Ubarretxena alkate jaunak Irakaskuntzako zuzendari jaunari eskatzen dio Hernani herrirako Escuela Rural bat sortzeko baimena bidera dezala. Izan ere, bailara honetako haurrek eskolaren premia handia zuten, urruti gelditzen baitzitzairen herriaren erdigunea eta lehenengo eskola.

Luis Elizalde arkitektoak 1930eko irailean izenpetu zuen, eta herriko udaletxeko zigilua jarri eta bidali ziren.

Urtea amaitu aurretik etorri zitzairen Lehenengo Irakaskuntzako Sekzio Administratibotik aurrera egiteko erantzuna.

ESKOLAREN LEKUALDAKETA

Arestian esan bezala, 1930. urtean Escuela Rural bat egiteko planifikazio guztia egina eta, lur, langile, diru kontu ... dena hitz eginda eta ziurtatuta zegoen. Baina 1932ko maiatzean agiri bat iritsi zen herriko etxera, honela zioena:

"...Foru Aldundiko Irakaskuntza Komisioak ez du onartzen Hernaniko Irakaskuntza Komisioan Loidi etxalde aurrean Escuela Rural bat egiteko onartu duzuen lur zatia, kontuan izanik lur hori Urumea ibaitik gertuegi dagoela eta uholdeak izatera haurrak eta eskola arriskuan jartzea litzatekeela, eta, gainera, oso leku haizetsua dela..."

Beste terreno bat aurkitu beharrean ikusi ziren, beraz, inguru berean kondizio hobeetan: altuera eta leku babesagoa izango zituen.

Herriko Irakaskuntza Komisia kokaleku egokia bilatzen hasi zen eta *Arriatsu baserriko* lurak aukeratu ziren. Baserri honetako nagusiak Maria I. de Mujika eta Roke Elozegi ziren. Sagardogile iaioa zen Roke. Andre-kalean zuen *Roke Arriatsuenia* sagardotegia, Azurmendi tabernaren parean, gaur Atxur taberna dagoen lekuan. Senar-emazte hauek ez zuten familiarik. *Arriatsu* baserria garai hartan sagastiz inguratuta zegoen eta hango sagasti bat aukeratu zen eskola eraikitzeko.

Loidi etxaldeko lurzorua udalarena izanik, ez zuen kosturik, baina *Arriatsukoa*, berriz, ordaindu egin behar zen. Beraz, hasierako gastuei lurrarena ere gehitu behar izan zitzairen.

Foru Aldundiak eta Aurrezki Kutxa Probintzialak aurrez onartuta zuten Eskolaren eraikuntzan parte hartzea, baina lurak erostearena ez zen aurrekontu hartan aipatzen.

Berrito baimenak, paperak, planoak, diruak... denak bildu eta elkarrizketak egiten hasi ziren honako erakunde hauek: Foru Aldundia, Aurrezki Kutxa, Delegazioa eta Hernaniko Udala. Lurak erosteko ardura udaletxeak hartu zuen bere gain. 2.240 metro koadro, 2,50 pta. metroko, erosi zitzaizkion Roke Elozegiri *Arriatsuko* eskola egiteko.

Antonio Irazusta jaunak, nekazaritzako peritua berak, 1932ko maiatzaren 23an planoak izenpetzen ditu. Eta gainerako dokumentazioa herriko etxearen izenean Miguel Toledok, Cesareo Etxeberriak, Francisco Zapiainek eta Jose M^a San Josek. Dokumentuak bidali ondoren, Foru Aldundiko Komisioak bere oniritzia ematen du.

Osoko Bilkuran Batzorde Probintzialak 1932ko uztailaren 15ean lehiaketara ateratzen ditu bost Escuela Ruralen eraikuntzak: Oiartzun, Legazpi, Lezo, Zizurkil eta Hernani.

Baina Hernaniko udaletxeak abuztuaren 2an Gipuzkoako Batzorde Probintzialari jakinarazten dio Escuela Rural Arriatsu egiteko baldintzen txostenik ez dela aurkeztu.

Hernaniko udaletxeko Irakaskuntza Batzordeak eta arkitekto probintzialak Andoingo Arin anaiei esleitu zieten Escuela Rural Arriatsu eskolaren obra. Arin anaiek 26.221 pezetan egingo dutela hitz ematen dute.

Obrak egiterakoan, beste behar hauei ere aurre egin zieten:

- Pedro Alberdi Mercader, *Etxespuru* baserriko nagusiak, baimena eman zion Hernaniko udaletxeari Portu auzotik Osiñagara doan bidean *Etxespuru* baserriko basoan gora Escuela Rural Arriatsura bidea irekitzeko. Bidea auzolanean egin zen, eta udaletxeak jarri zuen materiala. Materiala idiekin garraiatu zuten.

- Escuela Rural Arriatsurako 10.000 litroko ur biltegi baten planoak eta presupuestoa ere ageri dira.

- Argia eta ur hornikuntzaren informazioa, lehenbailehen jakiteko noiz erabili ahalko zituzten.

- Ur analisiak egiteko laginak *Argindegi* baserritik hartu ziren eta ontzat eman.

ESKOLAREN INAGURAZIOA



Arriatsu Eskolako ikasleak Srta. Ferminarekin. Mutil eta neska hauekin ireki zen eskola 1933/34 ikasturtean. Ezkerretik eskubira eta goitik behera; lehenengo lerroa: Ignacio Peñagaricano Arteaga, XXX, José Ramón Beobide Iguaran, Francisco Albisu, Jesús Ugalde, Margarita Arrue Amonarraiz, Asunción Berrondo Larburu, Pepita Abalabide Iradi eta M^a Pilar Zubiarrain. Bigarren lerroa: Bartolome Albizu, Luis Beobide Iguaran, Francisco Lizaso, Antonio Larrañaga Arrieta, Francisco Pagola Alberdi, José M^a Pagola Alberdi, Pepita Arrieta Otaño, Srta. Fermina, Mikeli Arrieta Otaño, Maritxu Arrieta Otaño, Manoli Arrue Amonarraiz eta Micaela Elorza. Hirugarren lerroa: Francisco Almorza, José Etxeberria Garmendia, José Ramón Garmendia, Juan Etxeberria, Juan Iradi Abalabide, José Ramón Berrondo Larburu, M^a Dolores Insausti, M^a Carmen Beobide Iguaran, Julia Larrañaga Arrieta, M^a Luisa Berrondo Larburu eta Natividad Berrondo Larburu. Laugarren lerroa: Pablo Arruarte, Francisco Izaguirre, Miguel M^a Iradi Abalabide, Juanito Garin Iraola, Agustín Elorza Iradi, Lorenzo Anabitarte, Bautista Iradi Abalabide, Juanita Pagola Alberdi, M^a Asunción Zubiarrain eta M^a Rosario Pérez

Hernaniko Irakaskuntza Batzordearen lehendakariak jakinarazten du: "Datorren asteazkenean, hilak 6, Escuela Rural Arriatsuren inaugurazioa izango da. Ekintzak goizeko 10:30ean hasiko dira eta Irakaskuntza Batzordea eta udalbatza izango dira bertan, baita lehenengo aldiz matrikula egin duten haurrak eta familia ere, eta jaialdian parte hartu nahi duten guztiak".

Horrela, 1933ko abenduaren 6an inauguratu zen. Egun ospetsua, ederra, izan omen zen auzoan, ahaztu ezina. Eskolak aterpe txiki bat zuenez, bertan pilota partida jokatu zuten. Tolaretako Pablo, Roke Arriatsu eta Jose Barrenetxea izan ziren pilotariak. Ardi-zahar jatea ere egin omen zuten.

Artxiboan dago hasiera-hasierako haurren zerrenda. 51 ziren, 26 neska eta 25 mutil.

Auzoko baserrietako haurrez gain, Urnietako baserrietatik ere etortzen ziren, gertuago baitzuten Escuela Rural Arriatsu, Urnietako eskola baino.

Escuela Rural Arriatsu, hasierako urteetan agiri ofizialetan Escuela Rural Loidi izenarekin azaltzen da. Izen horrekin egin baitzen lehenengo eskaria.

Escuela Rural Loidi eraikitzeko gastuaren zatirik handiena Hernaniko udaletxeak jarri zuenez, Escuela Rural Loidi ordeztu Escuela Municipal Arriatsu izena hartu zuen.



Arriatsu Eskola 1944/45. Srta. Dionisia Iturrioz Malkorra. Ezkerretik eskubira eta goitik behera, lehenengo lerroa: Joxepi Goikoetxea Errazkin, Petri Otegi Iturralde, Pepi Goikoetxea Ormazabal, Martina Iraola Urkola, Manoli Garin Ugalde, Arantxa Artola Elizondo, M^a Dolores Arana Goñi, Srta. Dionisia Iturrioz Malkorra, M^a Jesús Urdangarin, Juani Aginaga Aranguren, M^a Luisa Lujanbio Camio eta M^a Luisa Errazkin Anabitarte. Bigarren lerroa: M^a Carmen Arregui Perurena, M^a Luisa Garin Ugalde, M^a Jesus Zabalo Arratibel, M^a Teresa Jauregi, M^a Jesús Otegi Iturralde, Joakina Mendizabal Lekuona, Manoli Elorza Azpiolea, Arantxa Izeta Mujika, M^a Cruz Zapiain Arrue, M^a Cristina Goikoetxea Ormazabal eta Milagros Arregi Perurena. Hirugarren lerroa: Izaskun Martikorena San Sebastian, Arantxa Iraola Urkola, M^a Cruz Erdocia, M^a Coro Lujanbio Camio, Begoña Iraola Urkola, Maritxu Arruarte Mendizabal, M^a Carmen Garin Ugalde, Arantxa Errazkin Izagirre, M^a Isabel Zabala Arrue, M^a Teresa Peñagarikano eta Arantxa Altuna Zapirain

Udala Escuela Municipal Arriatsuk sortzen zituen gastuak murrizteko, 1947. urtean Escuela Nacional egiteko bideak aztertzen hasi zen. Jose M^a Puig Villar Hernaniko alkate jaun zela, 1948ko uztailaren 22an eskaria egin zen Madrilera, eta 1949tik aurrera Escuela Nacional Arriatsu izan zen.

URTE ZAILAK

Escuela Rural Arriatsuren lehen hamar urteak, urte zailak izan ziren benetan, II Errepublikaren eta Gerra Zibilaren urteak.

Errepublika garaian eskola barnean doktrina edo erlijioa erakustea debekatuta zegoen. Eskolak aurrean eskailerak zituen eta atarian eserita ematen zitzairen haurrei Kristau Ikasbidea. Batzuetan ikasle zaharrenek irakasten zieten txikiagoei.

Gerra Zibila bukatu zenerako, herrian familia asko ezer gabe ziren, etxerik gabe eta zer jan ez zutela.

Gaur Kale Nagusian *Amboto* arropa denda dagoen lekuan jangela ireki zen, "Auxilio Social" izenekoa, eta hor bazkaltzen ematen zitzairen zer jan ez zutenei. Udaletxeak eskolara agindua bidaltzen zuenean *señoritik* –hala esaten zieten bertako andereñoek– haurrak eskera bidaltzen zituen baserri baserri eta etxez etxe. Generoa (babarrunak, arrautzak e. a.) biltzen zuten eta udaletxean uzten; ondoren jangelan banatzen zen. Señoritek esaten zuten: "gaur *plato único* eskea" eta pozik joaten ziren haurrak.

Eskolak bazuen sukaldea, nahi zuenak bazkaria ekarri eta eguerdian berotu eta bertan bazkaltzeko. Sukaldean ere erakusten zitzairen ikasleei, batez ere postreak egiten.



Antton Garinek, 12 urte zituela (1949an), Arriatsu Eskolan pintatutako kuadro bat

Felisa Atorrasagasti anderea joaten omen zen Hernanitik, batzuetan erakustera eta beste batzuetan laguntzera arratsaldean.

Neskek josten ikasten zuten: gurutze-puntua kañamazoan, kuxinak, galtzerdi-puntua... Mutilek, berriz, marrazkiak egin, pintatu...

Srta. Dionisia Iturrioz Malkorrarekin pintatu omen zituen arrosak 1949an Antton Garinek 12 urte zituela, koadro dotorea. Gaur oraindik oso estimatua du, sinetsi ezinik berak egin zuela. Bere logelan zintzilikatua dauka.

Srta. Isabel Iturrioz Telleriak garbitasun handia eskatzen zien haurrei eta astean behin bazen ere, eskuak, belarriak, burua, lepoa begiratzen zien. Sarrerako atean lerroan jartzen ziren haurrak eta Señoritak banan-banan begiratu ahala sartzen ziren. Sariak ere ematen zizkien.

MAIXTRAK

Escuela Rural Arriatsun maixtrak izan ziren hasieran irakaskuntza zuzendu zutenak. *Señorita* deitzen zieten: Srta. Fermina; Srta. Caridad Martínez Perez-Galdos (Iruñekoa); Srta. Carmen; Srta. Isabel Iturrioz Telleria; Srta. Dionisia Iturrioz



Arregi Etxabe, José M^o Arregi Etxabe, Sebastian Lujanbio Camio, Juan Bautista Otegi Iturralde, Luis Miguel Lujanbio, Jesús M^o..., Manuel Goikoetxea, Agustín Arregi Perurena eta Inazio Elorza. Laugarren lerroa: Paulo Arruarte Mendizabal, Florentino Martínez, XXX, XXX, XXX, Jose Ignacio Zabaleta Larburu eta Bernardo Lujanbio Camio



Malkorra (Orexakoa, gerora Tolosara ezkondua); Srta. Pura Gil de Brauer (1959), eta hau gaixorik gelditzen zenean ordezkaketa Lolo Brauer alabak egiten zuen; Srta. Juani Otxotorena Recalde.

Arriatsuko eskolara Pakita Balerdi, Ugaldetxokoa, joan zen 1967-68 ikasturtean, Florida auzoko eskola Srta. Purari eman ziotenean.

Don Antonio.

Srta. Julia Moreno, Logroñokoa bera, 1972 irailean etorri zen Arriatsura. Sei urte egin zituen. Oinarrizko Heziketako 1., 2. eta 3. kurtsoak eta eskolaurrea ematen zuen.

Don Salvador Salazarrek Oinarrizko Heziketako 4., 5., 6., 7. eta 8. kurtsoak ematen zituen.

Escuela Nacional Arriatsuren azken ikasurtea 1977/78koa izan zen, haur gutxi zela eta. Urte tristea benetan hau, batetik, eskolaren itxieragatik eta, bestetik, ezbehar latza gertatu zelako: 1978ko ekainaren 25ean, Sanjoanetan, Urumea ibaian batel estropadak eta Elorrabiko zubian jende gehiegi ikusmiran eta pisuarekin erori egin zen. Sei lagun ito

ziren. Horien artean M^a Pilar Arrieta, Arriatsu eskolako ikasle bat.

Srta. Juliak 10.000 pta. bilduak zituen ikasleekin Igeldora ibilaldia egiteko. Ezbehar hori gertatu zenean, ibilaldia bertan behera utzi zuten eta diru horrekin lore-koroa erosi omen zuten M^a Pilarren oroimenez.

Langile Ikastolako haurrek 1978ko urrian Arriatsuko Eskolan eman zioten hasiera ikasturte berriari.



Arriatsu Eskola gaur (1999an)

•Garai hartako eskola guztiek estufa beltz bat izaten zuten neguan hotzari kontra egiteko. Gela erdian edo albo batean, sua egurrez egin, tximiniako hodi luzea leihotik kanpora kea boteaz, eta estufaren bueltan alanbrea, haurrak erre ez zitezen. Eta haurrek, batez ere mutilek, alanbre hori zuten jostailu: beren eserlekutik altxatzen zirenean, komunera, edo beste bati zer bait esatera, zakarrontzira... disimuluan arkatza karraskatzen omen zuten alanbrean, soinua atereaz, "tirrii, tarraa...". Batzuek barre egiten zuten, beste batzuek sustoa hartzen zuten... eta azkenean señorita haserre. Mutilak, azioa eginez gero, pozik.

•*Kalkuloneko* neskak ordu erdi lehenago joaten omen ziren Arriatsuko eskolara, gelan sartu baino lehen txingoan saioa egitera. Beren baitan pentsatzen omen zuten: "Arriatsu baserriko zakurrak etorri gero, non sarturik ez dugu". Ze beldurra pasatzen zuten!

•Behin, bi neska-mutilek, bakoitza bere baseritik eskolarako bidean zihoala, bidegurutze batean topo egin zuten. Bidean hor sortu zaie arazoa: mutilak Madrid "Z" letraz bukatzen zela zioen, eta neskak "D" letraz amaitzen zela. Baietz eta ezetz, azkeneko hitza señoritak zuen. Beraz, eskolara iritsi bezain azkar, hor doaz biak zuzenean señoritarengana. Eta honek Madrid "D" letraz bukatzen zela. Neskaren poza, mutilak baino gehiago zekiela eta!

•Garai hartako haur batzuk oraindik gogoratzen dira nola Mola eta Moscardo jeneralak hil zirenean Espainiako banderari borla beltza erantsi zioten.

ESKERRAK

Hau dena bildu eta herriari azaltzeko modua egin duzuen guztiei, batez ere herriko artxiboari, han hainbat datu aurkitu ditudalako, eskerrik asko !

Eskerrik asko kontu xaharrak kontatu eta argazkiak utzi dizkiguzuen guztioi. Jarrai zuen "*Arriatsuko Unibertsitatea*"k eman eta erakutsi dizuenarekin, horrek lagundu baitizue zaretenak izaten.

Eutsi goiari !